

Azken urteetan planeta oso gaizki zaindu dugu eta arazo larri honen aurrean zerbait egin behar dugula uste dugu, eta horregatik sortu dugu gure enpresa. Kaletik, menditik, hondartzatik edo edozein beste lekuren batetik pasatzen zarenean, iskina guztietan ikusten dira gizakiok lurrera botatzen ditugun paperak, plastikoak, botailak, etab, eta azken finean hori da planetari kalte gehiena egiten diona. Horren ondorioz, gure produktu disolbagarriak sortu ditugu arazo hau gutxinaka hobetzen joateko.

Gure egunerokoan plastikozko botaila, edalontzi, ontzi, plater, sardeska, labana eta beste produktu gehiago erabiltzen ditugu gauza ezberdinetarako. Botailak kalera ura eramateko erabiltzen ditugu, ontziak janaria sartzeko eta azkenik platerak, labanak, goilarak, sardeskak eta edalontziak asko erabiltzen ditugu jende asko egongo den opakizun bat antolatzen dugunean askoz ere erosoagoak direlako, hau da, ez dira puskatzen eta ez ditugu garbitu behar.

Aipatu dudan erabilera hori ez zaigu desagokia iruditzen, baina gure ustez plastikoaren erabilera murriztu beharko genuke kutsadura murrizteko eta plastikoak erabili nahi dituen pertsonak gero birziklatu beharko lituzkeela uste dugu.

Baina plastikoa erabiltzeari utziz edo birziklatuz, ez dugu uste arazo larri hau konponduko genukeenik, eta horregatik sortu dugu gure enpresa. Disolbatzen den baxera sortu dugu, besteak beste; edalontziak, botailak, platerak, etab, baina hauek ez dira plastikozkoak, beraz hauek erabili ondoren, zaborrontzira botatzerakoan, denbora tarte bata pasatzen den momentuan disolbatu egiten dira, eta desagertu egiten dira inolako kutsadurarik sortu gabe.

Gure enpresa erabili eta botatzeko beste edozein enpresa batetik bereizten da ez duelako kutsadura sorrarazten. Plastikozko baxera arrunt bat oso kaltegarria da ingurunearentzat, baina gure baxera berriz, material bereziaz egina dagoenez, disolbatu egiten da eta gainera lagungarria da zuhaitzentzat, landareentzat, etab. Gainera, enpresa berri bat denez eta produktu hau aurretik asmatuta ez dagoenez, beste enpresengandik bereizten gaitu bezeroek interesa izan dezaketeelako produktu ekologiko hauengan.

